

OLERKIAK

BIHAR ETZI ATZO DA

*Ainara ainara polit eta gazte
Zabarrak eta gazteak dabiltza zure atze
Begi urdin ile hori
Ederra zera zu Ainara*

Bizitzen ahalegindu edo
hiltzen saiatu
itxaropena baita
gauzarik baliotsuena
eta azkeneraino
gorde beharrekoa.

*Zure ametsetako bikotea ez da existitzen,
Beraz, utzi bilatzeari.*

Ametsak beti amets,
baina bizitza bera
ez al da amets bat?
Batzuetan ez dakit
amesten dudana
egia edo ilusio faltsu bat den,
izan ere
bizitza norberak egiten du,
norberaren nahien arabera...

I close my eyes and I start to dream...

Dream...

I close my eyes and I start to think...

Think...

I close my eyes and I start to picture myself a wonderful world...

A wonderful world...

Ez da haitzurra lurrerako egina,
 baina zuloa egiteko balio du.
 ez naiz ni ere lurrerako egina,
 baina hala ere gizarteak
 egunen batean
 bultzatuko nau horretara.
 Hori lortzen badu gizarteak
 Orduan bai galdua naizela:
 Ez dut loerik miretsiko,
 ez izarririk lortu nahi izango,
 ametsak urrundik agurka izarretatik arituko zaizkit
 eta nik ezingo ditut laztandu
 eta orduan
 hatzamarrak odolez sentituko ditut
 eta izar odol gorritu bat eroriren
 nere oinetara... barkamen eske?
 Denbora
 lanaren eta nekearen ondorioz
 geratuko da
 eta ni berarekin batera etsipendurik
 lana alde batera utzita
 bizitzaz disfrutatu ez izana damutuko naiz,
 malko gazi batek nere azal gaztean
 lehen zimurra marrazten duen bitartean
 ez!!!
 Oraindik gaztea naiz eta harro nago...

Zeru eta lur artean egotera
kondenaturik nago
ez dago beste biderik
mundu honetan.

Zeru eta lur artean nagoela
bihotzak agintzen du eta
berori da nirvanarantz naramana
paradisura bidean
ez du pena merezi
eguzki gozotan egotea
paradisurako bidea
bide malkartsuz beterik dago
oztopoz beterik
sufrimenduak hurbiltzen gaitu
jainkoaganantz
zukanantz
maitemindurik nago
oraintxe bertan...

*Denek maite eta mires nazaten
amets egiten dut egunero*

Ahazteko botika
ene amets politak ahazteko,
ezer ez baita betiko
eta denbora aurrera doa.

*Adios amor de medianoche
boy mi voz quiere gritar
abre tu puerta y dejame volar
volar en libertad.*

Ibiliko gara aspaldiko partez
lagun minak garela
txiki-txikitatik
barku batean ibili gara
kantuan ere bai
olatueta barna
faissant la balançoir.

Au Claire de la lune

Ametsak egiten
pasatzen dut eguna
eta errealitate bihurtzen ez direnez,
tripako mina daukat gaur.

Amets lorea zinen
eta loratu egiten zara gauero
ene ametsetan...
gu gara nazioa
eta ez mapetan dauden marrazkiak
pertsona boteretsuek
beren erara diseinatu dituzten marrazki horiek.

Nere pentsamenduetan preso hartu zaitut
barkatu
sentitzen dut
zure kartzelako ateko sarraileko giltza aurkitzen
saiatuko naiz
zure askatasunaren mesederako...

Laratzak bakarrik daki etxekoan berri

Gelditu eta gozatu
 gelditu eta hausnartu
 gelditu eta miretsi ingurua
 gelditu eta begiratu,
 entzun,
 eta azkenik,
 hitz egin eta lasai zaitez!

Ni gelditzean
 mundua gelditzen ez dela
 konturatzen naiz,
 ni gelditzean
 mundua biraka segitzen duela
 konturatzen naiz,
 eta ez da deus ere gertatzen,
 ni gelditzen naizela soilik
 eta gainerako guztiak baino atzerago noala
 konturatzen naiz.
 Denbora gelditzen dudanaren sentipena dut
 bat-batean ni gelditzean
 lasterraldi baten ondoren
 kolpe batez gelditu eta
 akabo!

Munduaren martxa ikusiz
 nik galdu dut aurrera segitzeko motibazioa:
 izozturik gelditzen naiz
 ametsak soilik daude ene buruan biraka,
 gero eta indartsuago neure buruan,
 eta bat-batean
 ametsen askapen nahiari esker
 pixkanaka hasten naiz mugitzen,
 lehenik oinak
 eta gero beste guztia
 munduaren martxa berriro hartu arte!

*Zalantzaren itzalak ikaratzen zaitu
Lausoturik baitzaude*

Ametsetako paperetatik ateratako
txotxongilo bat dirudit
egun batean Sondikan
eta egun berean
ordu batzuetara soilik
Bremenen
Plis-plas batean.

*Woher du kommst,
Wohin du jets
Goodbye, cherie!
Wie schnell pass die Zeit
Und ich fühle es fast...*

*Am Wilhelm-Kaisen-Brücke
Bin ich in eine Ecke*

Paperezko magia
magiazko paperak
magiak udazken koloreak agertzen ditu
eta urtez urte koloreak ateratzen zaizkigu.
Horregatik
paperek oroitarazten dizkigute
zer nolako bizitza izan dugun.
Baina magiak etorkizuna gordeta dakar
egun egokia iritsi arte:
Orduan,
Carpe diem
eta irribarre bat ezpainetan
alaitzen ditugu
triste daudenak

loreen petaloak
eta zuhaitzetako hostoak
gure begien aurrean erortzean,
malenkoniazko negar gazi-gozoak
irribarrea lehenaldian izozten da.

Gaur arratsaldez,
pozez zorutzen egon naiz.

*Wer keine Lust zum Träumen hat,
hat keine Kraft zu kämpfen
aber
wer verpasst die ganze Zeit träumen,
hat keine Zeit zum kämpfen.*

*Das Leben sieht doch gleich viel rosiger aus,
wenn du morgens im Briefkasten
eine Postkarte findest,
und du weißt:*
NORBAITEK ZUGAN PENTSATU DU.

*Die Liebe deines Lebens ist nur einen Mausklick entfernt
e-m@il für dich...
seid nicht alleine in der neue Morgen
ich bin verrückt nach Dich!*

Gaur ez dut eskutizik jaso,
baina arratsaldez jaso dudan e-m@ilak
aunitz poztu nau
bihar berriro idatziko balit!

Ezin dut egon egun bat
e-m@il bat jaso gabe.
e-m@il baten esperoan nago egunero

eta gaixorik nago.
 Gaixo interneten barna nabigatzen.
 Gaixo zure berri jakin arte
 zure berri izatean
 zoriontsu naiz egun osorako,
 zu gabe, ordea...
 ezin dut jada egun bat izan
 e-m@il bat jaso gabe.
 ez dut onik zure e-m@il bat jaso gabe.
 Idatzi, arren, egunean bat...

*Ganz oder gar nichts!
 Du muss entscheiden
 Ganz oder gar nichts!
 Nicht nur bisschen,
 weil ich dich liebe...*

Gaur ametsezko postal bat
 jaso nahi dut
 edo jaso al dut jada?
 Jasotzen ari naizela
 sentitzen dut,
 baina ez dakit zein unetan bizi naizen
 edo bizitu naizen...
 orain hau idatzi eta...
 ...bihar zer?

Bihar etzi atzo da.
Carpe diem, bada!

Denbora ihesi doa eta ni,
 bere bornean harrapaturik!
 Eureka barnean egonik
 sarea eskuetan eta arrainak nere aldamenetik pasatzen
 ezin korrontea gelditu

ezin probestu uneak emandako aukerak.

*Izan nintzena eta gebiago izango ez naizena gogora
arazten didalako,*

*eta ez dagoen tokian ez dagoena ikusteko gaitasuna
betiko galdu dudalako.*

ZIRKOA.

Libre bagina bezala bizitzen ikasi behar dugu
eta irribarre bat egunero
Clown bat naizelako
uneak biltzen ditudalako.

*Oui, les étoiles,
Ça me fait toujours rire!*

AMETSA KANPOAN DAGO

Amets egin dut
negua atzean geratu zela
zu hemen zeundela
eta egunsenti eguzkitsu batez
gozatzen ari ginela elkarrekin.
Amets egin dut
beldurrik ez zegoela
ezta dues galtzekorik ere.
Pertsonengan bakea zegoela
eta animalian paradisia.
Ametsa kanpoan dago
baina dena emango dut
errealitatea izan dadin.

*Motibo baten bila nabil egunero, larrosaren
arantza barruraino sartua.*

Poesian aurkitu dut nere helburura iristeko bidea
oraindik ez dakidalarik ere
zein den helburua
poesia bera ote?

Baditugu ere mila motibo triste egoteko,
baina beti aitzina!
Jeden Morgen geht die Sonne auf...

Elurra!
Neguko itxaropena eta argitasuna
atoz neregana...

Pääskynen airosa
enara bihotz on
beti aitzina!
Pääskynen panpoxa
enarak noranahi
hegan
zehatz-mehatz nora ez dakiela!

Pääskynen airosa
enara, aukeratu bide bat,
maitasuna ala gorrotoa?
Bakea ala gerra?
Bizitza ala... nork dakit?
Bere etxea bila dabilen
Pääskynen edo enara airosa.
kabi goxoa egiteko itxaropenaz
argitasunean itxaropena
atoz nerekin

elurra!
Neguko itxaropena ote?
Udazken margoz dagoen
Pääskynen airosa!
Iheskor doa oharkabea
ezkutuko oroitzapen bidean
elurra!
Neguaren itxaropena eta argitasuna
itxaropena berekin dator
apainduaz jantzi xuriekin
maitasun bila dabilen bakea
biluztuz doan *pääskynen* airosa!
Lurko bidaian oharpen zaharren
dastapen gozoan
grinaz, zirrarez dute edertzen
gauetz maitale, suan erretzen.
Gauaren lumez idazten doazen,
ele ixilak datoz kantatzen
Jainko guztien atetan deitzen
asekaitz doa
bizitzan gozatzen.

Over the rainbow...
Independence day?

Amodioa zergatik ez?
Zenbatu orain duzun guztia
eta osasuna bufanda batez
inguratuko duzu,
goizero etxeko lanak eginez gero.

*Freunde der Bremer Strassenbahn
Bremer Weihnachtsmarkt*

I'm dreaming of a wild Christmas

Goazen etxera, goazen etxera
erretiratzeko ordu da
hamaikak puntúan etxeratuta
ohean sartuko naiz ta.
Imeilak ikus, telefono-dei
hori baita ene bizia
Alemaniako bazter honetan
hori behintzat ikasita.

Inuxenteen eguna

Ez zaitetz nire aurretik joan,
ez natzaizu-eta agian jarraituko.

Ez zaitetz nire atzetik joan,
ez zaitut eta agian eramango.

Nire ondoan joan,
eta izan zaitetz besterik gabe
nire bidai-laguna.

*Edelweiss edelweiss
Every morning greet to me
Small and white
You look happy to me*

IRRIBARREAK ETA MALKOAK
BETI ELKARREKIN

Bizitza horrela delako
ez dago malkorik gabeko irribarrerik,
ortzadarra euritearen ondoren agertzen den bezala,
beti dator irribarrea negar baten ondoren.

Baina falta dudanaren irrikan nago,
zer falta dudan ez dakidan arren.
Sekula irentsi ez dudan zerbait da,
auskalo aseko nauen.
Euria ekintza bat da,
baina gaur eguzkitsu dago eta
dena geldi dago
gogaikarria da eguzkitan egon beharra!
Aukeran nahiago dut
Euripean kantari ibili,
munduari eta bizitzari buruz
deus ere ez dakigun arren,
bizitzari buruz deus ere ez dakidala.

Zaila da bizitza bizitzea bestela ere:
sasoi makalak bizi ditugu,
neguan ez du elurrik egiten eta
itxaropena jada ez dator jantzi zuriz
hegal batzuez.

Ai, sasoi makaletako poetok!
Zer eginen dugu poesiaren giltza ttipiaz?

Irudimena handia dudan pertsona naiz
barruko mundu aberatsa dudan pertsona naiz
ongi idazten dudan emakume euskalduna naiz
maite ditudanez kezkatzen naiz
ez al da polita?

Nere bizitza
 nere izatea
 nere esku dago
 nere ametsen munduan bizi naiz
 eta nahi izatea
 ahal izatea da,
 baina borondaterik ez edukitzea da
 gauzarik okerrena.
 Errealitateak dezepzionatzen nau batzuetan,
 gizartearen jokabideak hutsegini dit,
 baina nere jokaera aldatu behar dut
 horren guztiorren aurrean.

AMETS EGIN!

Hemen nago berriro:
 hodeien artetik jaitsitako poetisa,
 nahiago dut hegan egin
 autobusez ibili baino.
 Nahiago dut hegan egin
 ene adixkide maiteekin batera.
 Nahiago dut hegan egin eta so egin
 bihar goizean goiz eguzkiarekin batera,
 nola nere aberria iratzartzen den.
 nahiago dut hegan egin eta dantzatu
 haizearekin batera.
 Hauxe baita ene ametsa:
 Hegan egin... bizi... maitemindu... bizi...
 ...amets egin...!

La vida es un libro del que no ha leído mas que una sola pagina quien no haya salido de su pais natal

Zergatik errepideetan erregaia isuri
hegan egin dezakegunean eta
zerutik maitasunezko euria erortzen utzi dezakegunean?

Zergatik pentsatu behar duzu zugan bakarrik
nigan pentsatu dezakezunean?

Zergatik informazioa pilatu geure buruetan
irudimena erabiliz gehiago lor daitekenean?

Bizi basati eta hegan egin ezazu!
Hizkuntza nortasuna bada
eta nazioak hizkuntzen gainean eraikitzen badira,
zergatik nazioen gainean hitz egin eta ez,
Nazioei edo herriei buruz
hizkuntzen bidez mintzatu?
zergatik “Nortasun Agiri Nazionala”
“Nortasun Agiri Linguistikoa”ren ordezt?
Nere nortasuna Euskara da eta
euskaradunen herrian bizi naiz,
nahiz eta han izanik,

Noraezean dabilen txori txikia bezala,
espero ez duzuenean,
zerura begiratu eta
txori olerkari bat entzungo duzue kantari
nere ahotsaz.

*From the distance
I see the Earth blue and green
From the distance
I help you when you want.*

Noraezean dabilen txoria naiz,
zeru goietan errari dabilen txantxangorria,
beti ere irribarre batekin
kantari dabilen hori...

1, 2 polizei
3, 4 ofizier
5,6 alte hexe
7,8 gute nacht
9, 10 schlafen gehen
11, 12 kommen die wölfe

Amets egiteko gogorik ez duenak
ez du borrokatzeko indarrrik:
Horregatik ametsezko eskutitz bat
egunero postontzian,
amets bat egia bihurtzeko,
barrutik hala sinetsiz gero.

Baina olerkari batek tuntuna izan behar ote du
mirets dezaten,
gero urkamendian bukatzeko?

*Es gibt viele Schwalben in dem Himmel
Ich bin aber ganz in der Erde
Ich möchte fliegen...
...und träumen!*

One moment in time

Idazmahaiaren gainean jirabuel­taka
istorio baterako ideiak daude,
idazle karrera egin nahi dut,
baina neure estiloan,
lana eta arrakasta ez baita guztia
bizitzan.

Idazmahaiaren gainean baina,
istorio baterako ideiak jirabuel­taka dabil­tzta,
eta orduan,
liburu bat idatziko dut!

Pinpilinpau­xa, poxpolintxo eta poetisa...

*Ich möchte Schriftstellerin werden,
Weil ich gerne schreibe und
Ein Gedichtsbuch publizieren will.*

AMETSA ZUHAIZPEAN

Gizon gaztea zuhaizpean,
eta nik,

bera ukitzen duten zuhaitz hosto eta loreak
ikusten ditut.

Belar berdeak usaina dauka

bertako ametsezko itzala beroegia dago
eta zero zoragarri bat irudikatzen du
bere barnean.

Bihotz-taupadek bere izena abesten dute:

AMETSA!

Bihotz minberen egunsentiko eguzkia,
kanpoan pazientziaz itxaroten dagoen herria,
ipuin zaharrek eztiaren gustu gozoa dute eta
abestia eureka garbietatik:

SAR ZAITEZ AMETSEN KOLOREEKIN
PINTATZEN ARI ZAREN KOADROAN!

Udazken lizunez jantzirik dagoen ametsa,
zerutik izarrak bere atzetik barrezka daudelarik,
hodeien artetik margotuz doa bizi-tza,
hegan doan txori ederra bezala,

lumaren bila dabil, eta
arnasaldi batez

sentimenduz betetzen,

loratzen dira bere ezpainak.

Egunsentiko istant batez beterik dagoen

belardia da ametsa,

eguzkipean distira egiten duen zilarra,

horrelakoa da da bera

nire amodioa

nire ametsa!

Schneeglöckchen

Elur-ekilek azkenekoz jotzen dute
badatoz hego haizeak
uda iragarriz
eta ea ibiltarien bedeinkapenak etortzen diren
eta elkarrekin topo egin...

*Diese Schwalbe ist an Frühling verliebt
Eine schwalbe macht doch keinen Sommer...
Aber vielleicht...*

Edo udaberria badator
baina enara bakar batek
ez dakar udarik.

Bihotzean min
inorekin ez egin
jendearekin erremin
egindakoa desegin

Deus baino gehiago
hobeki maitemin
beste ezeren ondoan
bizilagunarekin sumin

Udaberria...!

ELURRA!

Xuriz jantzirik datorren esperantza,
udaberri xurian dator nigana,
eta zorionez betetzen nau,
nirekin ezkondu nahi duela
galdegiten didalarik

Ez al da polita,
goizero zuriz esnatuko bagina
eta adiskide baten berri jakitea?

*Ist Liebe nur ein Wort?
An jemandem zu denken,
Der nicht an dich denkt.*

Zu
Ni
Zu maitatuz
Ni ezagutzen naiz.

*Menschen mit Phantasie
Langweilen sich nie*

Bere herrira itzultzen den
ainara bezala
ikusi nahi zaitut ALAI eta
beti aitzina...

La vida no es nada sin una osada aventura

Nahiago dut lagun batekin iluntasunean ibili,
argitasunean bakarrik baino.
Iluntasunean zurekin
izar bila
eguna gauez jantzi delarik
izar bila
lasterka
egunez biluztu baino lehen.
Izar bila
iluntasunean
zurekin.

HUNG UP!

Erabat mobilizaturik gabiltza,
bai,
azken bolada honetan:
mila soinu eta doinu bitxi
nonahi
nirea ote?
Ez!
Nireak balada baten aireaz
ohartarazten nau
norbait nire premian baldin badago.

*Yo romperé tus fotos, yo quemaré tus cartas,
Para no verte más..
En el amor y en la guerra...*

Baina ez zaitut gehiago agobiatuko
maitasunean eta gerran,
baina ez dut gehiago zure irudia
nire ametsak eraikitzeke erabiliko.

Maitasuna edo gerra egin dezaket,
baina ez iezadazu eska
zutaz ahaztea
zure irudia beti nigan
eramango baitut
zuk nahi ala ez.
Zure irudia nire ametsak eraikitzeke
bakarrik ez erabiltzen saiatuko naiz,
baina ez dizut deus agintzen.

EURIPEAN

Leihotik sartu nahi izango lukeen
 euri-tanta bat sentitzen dut neure barnean,
 baina ni gelaren barruan nago.

Euri-tantaren freskotasuna sentitzen dut
 kanpoko euri-jasa entzuten dudan bitartean,
 poztasuna dago neure barnean
 naturaren bustialdiaren musikaz blai.

Euria da nire bide-lagun
 aterkia nire askatasunaren oztopo
 euria baita neure barrua aske sentitzeko aukera,
 baina udaberriari gaudenez
 euritearen ondoren
 ortzadarra espero beharko genuke,
 Platonen kobazulotik aterako gaituen
 eguzki-izpiaren zain,
 Erromako zubia begien bistan
 eta esperantza
 leihoen kristaletik at...

BIZITZA MIRARIA DA!

Miraria da
 sufritu arren,
 bizitzaren bideetan oraindik ere
 segitzea
 bihar beste egun bat izanen da
 eta hobe lo egitea,
 adiskiderik gabe
 bizitzea baino.

*ME ENTREGARE A HOMBRES CON EL CORAZON
DE VIKINGOS Y CON LA FE DE UN NIÑO*

Txikitatik amets egin dut
nire mutilarekin.
nire irudimenean soilik
dagoen gizaki perfektu bat da eta
hodei gozoetatik
izarretatik
munduko errealitatera jaistean,
izaki perfektu horren antza gehien
duenarengan jartzen ditut begiak,
antzekotasun handia du...

VIVE Y DEJA VIVIR

Egia ez balitz...
Nork idazten du hau?
Ni izango ez banintz...
Nork pentsatzen du
Nik pentsatzen dudarik?
Ni amets bat banintz...
Nor saiatzen da urrundik
zure isiltasuna sentitzen
edo entzuten?
Egia ez balitz...
Nork idatzi du hau?
Agian...
Zuk...

Egia ez balitz...
Nork idazten du hau?
Egia ez balitz...
Nola dakizu pentsatzen duzuna

nik pentsatzen dudana ez dela?
Egia ez balitz...
Zer dira hitz hauek?
Egia ez balitz...
Nola azal nazakezu?
Nola azaldu
Nire existentzia xumea?

Egia ez banintz...
Poesia hau
anonimo geldituko litzateke.

Ainara Maia Urroz